

## **1. Azpiegiturak**

---

**Erreforma, hobetze eta egokitzeko esku hartzeen plana ikastegi ezberdinetan gauzatzea.**

- ❖ 2019/2020 ikasturtean, arreta berezia jarri da eraikinen arriskuen ebaluazioetatik eratorritako hobekuntza jarduketetan. Alde horretatik, Elurreta eraikinean barandak jarri dira eskailera nagusian eta haien argiztapena hobetu da; Farmazia Fakultatean, berriz, sutetik babesteko elementu berriak instalatu dira sektorizazioa hobetzeko (1. fasea), eta tenkagailu gehigarriak jarri dira pabiloien kanpoko barandetan eta pabiloietan. Suteen aurkako telefonogune berri bat instalatu da Ingeniaritza Eskolan. Ildo beretik, bigarren fasea lizitatu eta esleitu da Farmazia fakultatearen sektorizazioa hobetzeko. Lan horiek 2020ko ekitaldiko azken hiruhilekoan gauzatuko dira (2020/2021 ikasturtea).
- ❖ Farmazia Fakultatean simulazio gela bat gaitzeko lanak amaitu dira.
- ❖ Bi irakaskuntza gune berri prestatu dira Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatean.
- ❖ Ate automatikoak jarri dira Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, bai eta eraikin nagusian eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kirol Atalaren kiroldegian ere. Era berean, campuseko eraikin nagusietako ate automatikoen berrikuspen eta mantentze lanak egin dira, irisgarritasun unibertsala bermatzeko.
- ❖ Leihateak berriztu dira mendebaldeko fatxadan, aluminiozko eta beira klimatikoazko arotzeria berriarekin.
- ❖ Era berean, baldintza akustikoak, argiztapen baldintzak eta abar hobetzera bideratutako hainbat jarduketa gauzatu da hainbat ikastetxetako ikasgela, laborategi eta zirkulazio eremuetan (Ingeniaritza Eskola, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Egoitza, Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea, Letren Fakultatea).
- ❖ 48/20 PIS (prozedura ireki sinplifikatua) izapidetu da Arabako Campuseko eraikinetan zenbait lokal berritzeko obrak egiteko. Lan horiek 2020ko ekitaldiko azken hiruhilekoan gauzatuko dira (2020/2021 ikasturtea).

## **2. Garapen akademikoa eta ikerketa garapena**

---

### **2.1. Komunikazio zientifikoko programa erraztea, zenbait egitura eta ekitaldiren bidez.**

2019ko *Zientzia Astea* antolatzea Zientzia Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin. Arabako campusaren kasuan, *Zientzia Astea 2019* azaroaren 7 eta 10 bitartean burutu zen Bibat museoan eta 3 pertsona baino gehiago egon ziren programatutako jarduera ezberdinetan.

### **2.2. Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan IIPen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak egin dira.**

Irakasle eta ikertzaileen premia espezifiko eta zeharkakoak bete asmoa duen deialdian, hau da, "Ikerkuntzarako laguntza metodologikorako mintegi iraunkorra" izeneko programan, gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza eskaini da Arabako Campusean. Tarte honetan, 6 ikastaro antolatu dira, eta 67 emakumek eta 53 gizonek hartu dute parte.

### **2.3. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.**

UPV/EHUren Udako Ikastaroen Fundazioari laguntza ematea Arabako Campuseko ikertaldeek eta Arabako Lurralde Historikoko hainbat erakundek antolatzen dituzten ikastaroak antolatzeko.

Aurten, UPV/EHUren Udako Ikastaroen XXXVIII. edizioaren barruan, Arabako Campusean *online* formatuko 3 ikastaro antolatzen lagundu da:

- Ardoa 2020: Eta orain, zer? Krisiaren ondoren, uztailaren 2an, Euskal Erkidegoko edarien sektorearen estrategia partekatzea eta definitzea.
- Emakumeak, indarkeria eta trantsizioa, irailaren 18an.
- Hiri hezlea: Udalak eta Eskola inklusiboa, irailaren 29an.

### 3. Esperientzia Gelak

---

#### 3.1. Giza Zientziak titulazioaren irakaskuntza antolatu.

Giza Zientzien titulazioa antolatu da, lau urteko iraupena duena, enborreko 18 irakasgairekin eta hautazko 22 irakasgairekin.

2020ko martxoaren 15etik aurrera, COVID-19ren krisiagatiko alarma egoerarekin, irakaskuntza guztia **online** eman zen, lehentasunez eGela bidez eta **Blackboard Collaborate** bideokonferentzia sistemaren bidez. Era berean, irakasleek materialak bidali eta jarraipena egin zuten posta elektronikoz, batez ere konexio arazoak eta/edo informatika jakintzarik eza zituzten ikasle dezente zeuden taldeetan.

#### 3.2. Abian jartzea Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta Ikastaro Osagarrien eskaintza.

- ❖ Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI) antolatu dira, karreran egin ez ziren hautazko irakasgaiekin eta "Historia", "Artearen historia" eta "Geografia eta Lurraldearen Antolamendua" graduetakoko irakaskuntza arautuko planetako irakasgaiekin.
- ❖ Hamar ikastaro osagarri proposatu dira, irakasle adituek irakatsita.

#### 3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatu.

- ❖ Webgunean argitaratu dira irakasgai eta ikastaroen programak.
- ❖ Harrera jardunaldiak egin dira 1. ikasturteko ikasleentzat, irailaren 25ean eta 26an. Zehazki, informazioa eman zaie titulazioari buruz, UPV/EHUn webgunea erabiltzeari buruzko tailer bat egin dute eta Campusaren bibliotekatik bisita gidatua egin dute. Matrikulazioari begira, afixak eta liburuxkak zabaldu dira.
- ❖ *El Correo* eta *El Diario de Noticias de Álava* egunkarietan iragarki bana argitaratu da matrikulazio epeen inguruan.
- ❖ Ikasturtearen inaugurazio ekitaldia antolatu da, 2019ko irailaren 30ean, 18:00etan, Letren Fakultateko Areto Nagusian. Irakasgai magistrala Concepción de la Rúa Vaca doktorearen esku egon zen, UPV/EHUn Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia saileko katedradun eta Jakiundeko akademikoko kidea. Irakasgaiaren titulua '**Musika eta giza eboluzioa. Historiaurrean abiatutako kontakizuna**' izan da.

- ❖ Oinarrizko informatika tailer bat antolatu da, funtsean, 1. ikasturteko ikasleentzat, 1. lauhilekoan. Horren helburua da ICTak erabiltzeko beldurrari aurre egitea eta "arrakala digitala" gainditzea; izan ere, oztopoa da egungo gizartean parte hartzeko, eta eragotzi egiten du gure unibertsitatean bertan gero eta gehiago erabiltzen diren bitartekoetara sartzea.
- ❖ Bestelako ekintzak: irakasgaien programak osatzeko eta testuingurua emateko, zenbait jarduera egin dira, hala nola, hitzaldiak, bisitak museoetara, kultur ibilbideak, partaidetza ABAOren opera entsegu orokorretan, irteerak kontzertuetara, jardunaldiak eta abar. Ekintza horiek guztiek zabaldu egin dute Esperientzia Geletan eskainitako prestakuntza, eta motibazio erantsia eman diete ikasleei. 2020ko martxoaren 15etik aurrera, COVID-19ren krisiagatik alarma egoerarekin, bertan behera utzi behar izan dira taldeko irteera eta bisita guztiak, antzerki emanaldiak, Arte Erromanikoko IV. Jardunaldiak eta programatutako hitzaldi asko (nahiz eta, udaberriko oportunitat aurrera, azken horietako batzuk bideokonferentziaz egin ahal izan genituen).
- ❖ Era berean, 2020ko maiatzaren 29rako aurreikusita zegoen ikasturteari amaiera emateko ekitaldia bertan behera utzi behar izan dute. **ACAEXA-AEIKE Ikasgeletako Ikasle eta Ikasle ohien Kultur Elkartearekin lankidetzan aritzea bere jarduerak antolatzeko.**

Esperientzia ikasgeletako ikasleei AEIKEk antolatutako hitzaldi guztiak zabaltzea eta gonbidatzea.

### **3.5. Esperientzia geletako ikasleek egindako "La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotsa" sei hilean behingo egunkariaren 33. eta 34. zenbakiak argitaratzea eta zabaltzea.**

Sei hilean behingo egunkariaren bi zenbaki horiek argitaratu eta zabaldu dira. 34. zenbakia, 2020ko maiatzekoa, online zabaldu zaie ikasle guztiei, eta paperean emango zaie 2020/2021 ikasturtearen hasieran.

### **3.6. UPV/EHUren sail eta ikastegiekin lankidetzan aritzea, bai eta beste erakunde eta elkarte batzuekin ere, jardueren antolaketan eta eskaintzan**

- ❖ UPV/EHUko Filologia Hispanikoa, Erromanikoa eta Literaturaren Teoria Sailarekin lankidetzan aritzea, "*Gaur egungo egunean...*": *gerra Zibilaren oihartzunak gaur egungo Espainiako literatura eta kultura irudikapenetan* izeneko Literatura Garaikideko jardunaldiak antolatzeko. Jardunaldiak Letren Fakultatean egin ziren, 2019ko urriaren 22an, 23an eta 24an, eta Gerra Zibilaren inguruko irakurketa dramatizatu batekin amaitu ziren.
- ❖ Bigarren ikasturte jarraian, CONECTAJOVEN proiektuan parte hartzea, 2019/2020 ikasturtearen lehenengo lauhilekoan garatuta. Jarduera KZGUNEetan egindako proposamenetik sortu zen eta Gasteizko bigarren hezkuntzako zenbait institutu, Gasteizko udaleko adinekoen zentro soziokulturalak eta Arabako Esperientzia Gelak batu ditu bertan. Gure ikasleek aukera izan zuten belaunaldi arteko proiektu batean parte hartzeko, teknologia berrien eremuan ikasi eta zerbitzuan jarduteko. Ikastaro honetan berehalako mezularitzako tresnak landu dira.
- ❖ "Iraganetik erreskatatuz eta etorkizunera proiektatuz" proiektua, Arabako Hezkuntza eta Kirol Fakultateko eta Esperientzia Geletako ikasleak garapen jasagarriko helburuen inguruko proiektu batean integratu dituen, hiru fasetan: hasiera batean, kulturartekotasun minorra egiten ari diren Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleek ikerketa eta eztabaida lana egin zuten aurretik; aldi berean, esperientzia geletako talde bateko ikasleek ere landu zituen aipatu ditugun helburuak. World coffee teknikaren bidez, bigarren une batean (2020/2/20) bildu ziren campuseko pabiloian bi titulazioetako ikasleak (Irakasleak eta Esperientzia Gelak), eztabaida mahai mistoetan. Eraitza guztiekin erakusketa egin zen Hezkuntza eta Kirola fakultatean. Proiektua UPV/EHUren Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika sailaren lankidetzaz antolatu da.

**3.7. Jardueren eskaintzari buruzko informazioa elkarri emateko harremanak ezartzea Arabako Foru Aldundiko adinekoen geletan eta Gasteizko Udaleko adinekoen zentro soziokulturalekin.**

Esperientzia Gelen jardueren berri eman dugu Gasteizko adinekoen zentro soziokulturaletan, Vital fundazioan eta Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen lkasgeletan. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei.

#### **4. Hizkuntza garapena**

---

Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren eta Gipuzkoa eta Bizkaiko campuseko euskararako zuzendaritzen lankidetzaz:

##### **4.1. 2018-2022 Euskararen III. Plan Gidaria Arabako Campusean burutu.**

Euskararen Gida Plana hedatzeko eta betetzeko ekintzak garatu dira.

##### **4.2. Unibertsitate eremuan euskararen erabilera sustatzea.**

- ❖ Arabako Campusak EUSKARALDIA (2020) unibertsitatearen eremuan antolatzeko eta garatzeko jarduerak hasi ditu, proiektua Gasteiz hiriarekin koordinatuta sustatuz.
- ❖ EHUskaralariak deialdia egin eta kudeatu da, unibertsitate komunitatean euskararen erabilera sustatzeko, ikasleak, irakasle eta ikertzaileak eta AZP barne.
- ❖ Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen duen Lazarraga Kultur Elkartearekin lankidetzan aritu gara, Campusean zein hirian euskararen erabilera sustatzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan.
- ❖ Oihaneder Euskararen Etxea eta UEUren Hitz Adina Mintzo zikloan parte hartu da Karlos Zurutuzaren "hitzaren jabeak: amazig eta kurdu herrien hizkuntz biziberritzerako prozesuak" hitzaldiarekin.
- ❖ Jarraipena eman zaio euskarak campusean duen erabileraren aztertzeari, Euskal Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz. Zehazkiago, gaztelania eta/edo euskararen erabilera ikertu da campuseko elkarrizketetan, Letren, Farmazia eta Hezkuntza eta Kirola fakultateetan.

##### **4.3. Euskara teknikoa sustatzeko jarduerak bultzatzea.**

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, euskaraz argitaratutako unibertsitate aldizkarien (*Tantak, Ekaia, Gogoa*, ASJU) argitalpena babestu da.

##### **4.4. Irakasle eta ikertzaileen eta AZPkoen prestakuntzara bideratutako jarduerak.**

Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren Errektoreordetzarekin lankidetzan, "Euskararen Arloko Errektoreordetzaren euskarazko hobekuntza ikastaroak" izeneko hobekuntza ikastaro honen antolakuntzan hartu du parte.

#### **4.5. Euskarazko irakaskuntza materiala egin, egokitu eta zabaltzeko laguntza.**

- ❖ Irakaskuntza liburuak euskarara itzultzeko eta euskarazko liburuak eta baliabide materialak sortzeko jarduerak bultzatu dira (Testugintza eta Ikasmaterialgintza deialdia).
- ❖ Testuak unibertsitateko ikastegietan banatzea.
- ❖ Testuen banaketa Oihanederren.

#### **4.6. Campuseko unibertsitate komunitatean atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntza: hizkuntza laborategiaren kudeaketa.**

- ❖ 2019/2020 ikasturteko lehenengo lauhilekoan ingelesa garatzeko hiru ikastaro eskaini dira: Communication Across Cultures, Writing for Impact eta Impromptu Speaking: Answering Questions and Difficult Situations on the Spot) eta 12 pertsonak hartu dute parte. Gainera, jarduera soziokultural bat eskaini da: English PintxoPote. 2 ordutako 6 saio egin dira, eta, batez beste, 5 pertsona bertaratu dira (nahiz eta 200 pertsonak eman duten izena bilerei buruzko informazioa jasotzeko).
- ❖ Bigarren lauhilekoa aldatu egin da COVID-19aren egoeratik. Aurrez aurreko hiru ikastaro bertan behera utzi dira, dagoeneko martxan zeudenak, eta online deialdi berri bat egin da 2020ko maiatzean, English in Use (18 pertsona), Small Talk (14 pertsona), Impromptu Speaking: Answering Questions and Difficult Situations on the Spot (15 pertsona) eta Pub & Science jarduera soziokulturala barne.
- ❖ Testu zientifikoak berrikusteko tutoretza zerbitzu bat jarri dugu martxan. Ikasturte honetan 12 testu berrikusi dira, eta guztiek banakako tutoretza-saioa izan dute online. Lanen bat dagoeneko argitaratu da.



## 5. Ekintzailletza eta laneratzea

---

### 5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (Bic Araba) lankidetzan, Arabako Campusean eta INIZIA oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa-haztegian ekintzailletza sustatzeko.

Kultura ekintzailearen hedapenaren esparruan, Arabako Campuseko INIZIA programa garatzeko hainbat jarduera egin da, eta 287 pertsonak parte hartu dute (156 emakume eta 131 gizon):

- ❖ Inizia Ekintzaile Bakarraren Sariaren VIII. edizioaren deialdia, enpresa-ekimen berritzaile edo oinarri zientifiko eta teknologikoko enpresa berritzaile bihurtzeko aukera gehien dituzten ekintzailletza proiektuak saritzeko. Sari honetan Arabako Campuseko unibertsitate komunitateko 25 parte-hartzaile izan dira (9 emakume eta 16 gizon).
- ❖ Gasteizko Ingeniaritza Eskolan, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Arabako Atala) eta Farmazia Fakultatean *Ekintzen Ikasten* proiektua garatzea, ikastetxe horietako irakasleekin lankidetzan. 4 gela ezberdinetako 98 ikaslek parte hartu dute.
- ❖ Ekintzailletzari lotutako gaitasunei buruzko prestakuntza emateko tailerrak eta jardunaldiak. Arabako Campusaren unibertsitateko 46 kidek baino gehiagok parte hartu dute.
- ❖ 2019ko azaroan, aste batean zehar, diziplina anitzeko profila duten UPV/EHUren Arabako campuseko 5 ikasle gizona eta 5 ikasle andrazko (ingeniaritza, EAZ, giza zientziak, kirola eta farmazia), pentsamolde ekintzailea izanik, aukera izan dute Ginebran bertan, Suitzan, CERN Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire kontseiluaren CBI Challenge Based Innovation programaren markoan ari diren ikertaldearen eguneroko lana ezagutzeko.
- ❖ Arabako Campuseko enpresa haztegiako ekintzaileei laguntza eta aholkularitza ematea.
- ❖ INIZIA DAY jardunaldia, INIZIA Arabacampus programaren barruan garatzen diren jarduera ezberdinak balioan jartzeko ekimena da. Jardunaldi horretan 50 pertsonak hartu zuten parte eta Inizia Banakako Ekintzailearen VIII. edizioaren irabazleei sariak eman zitzaizkien.
- ❖ Ekintza bateratuak diseinatzea eta exekutatzeko, ekintzaileen arteko harremanak sustatzeko; halaber, tokiko haztegien sare bat sortzea (udala eta Bic Araba).

- ❖ Lankidetza "Araba ekinean"-en XIX. edizioan, ekimen ekintzaileei eman beharreko sarien ebaluazio batzordeko kide gisa eta "Zure ideiak balio du 2020" ekimena bera lagunduz.
- ❖ Bic Araba CEIA Arabako Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa erakundearekin lankidetza. Urteko Lankidetza Hitzarmen Espezifikoa sinatu da, ekintzaileak sustatu, aholku eman eta laguntzeko programak egin daitezzen, eta Arabako Campusean oinarri teknologikoa duten enpresak sortzeko (INIZIA ArabaCampus programa).
- ❖ Ikasturte honetan, INIZIA enpresa haztegiaren proiektu berri bat sartu da, SergioBasket enpresa. Mintegian instalatutako gainerako enpresen jardueraren ebaluazioari dagokionez –Ebaluazio Batzordeak eginda–,aldeko txostena jaso dute guztiek.
- ❖ Eusko Jaurlaritzaren Gazte Ekintzailetza programa antolatzeko eta kudeatzeko lanetan esku hartu da. Horri loturik, 40 beka eman dira (hauetariko 9 Arabako campusean) azken hiru ikasturteetan (2016/2017, 2017/2018 edo 2018/2019) UPV/EHUn titulazio ofizial bat lortu duten edo 2019/2020 ikasturtean graduako azken ikasturtean zein masterrean matrikulatuta dauden pertsonek garatutako enpresa ideia edo proiektuak laguntzeko.

## **5.2. Araban ekintzailetza sustatzeko ekimenekin lankidetzan aritzea.**

Lankidetza Gasteizko Udalarekin, hitzarmena sinatuz, eta Gasteizko ekintzailetzan eta oinarri teknologikoko mintegietan inplikaturako gainerako eragileekin (AJEBASK, Bic Araba, AFA, Vital Fundazioa, Gasteizko Udala, etab.).

## **5.3. Laneratzearekin eta enplegu guneekin lotutako jarduerak zabaltzea.**

Hainbat erakunde eta erakunderekin lankidetzan aritu gara langabezia dauden eta aurretik lan esperientziarik izan ez duten edo esperientzia txikia duten gazteak kontratatuzko laguntzak zabaltzeko.

#### **5.4. Graduatutako ikasleen eta enpresen arteko lan bitartekaritza bultzatzea.**

UPV/EHUren Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin lankidetzan, hainbat ekintza garatu dira Arabako Campusean laneratzeari dagokionez; besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren "hezkuntza mundutik lan mundurako trantsizioa" programan parte hartu da, hau da, ikasleek enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko programan.

#### **5.5. UPV/EHUren Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea eta ikastegie laguntzea enpresetako praktiken kudeaketan.**

UPV/EHUren Praktika eta Enplegarritasun Zuzendaritzarekin lankidetzan, laguntza eman zaie Campuseko ikastegiei borondatezko praktikak kudeatzeko eta GAUR-PRAKTIGES plataforma erabiltzeko. Laguntza horren ondorioz, borondatezko praktikak eskaintzen dituzten campuseko ikastegi guztiek plataforma horren bidez egitea lortu da. 2019-2020 ikasturtean 487 praktika egin dira campusean.

#### **5.6. Enplegu-Gune 2020 antolatzea (Vitoria-Gasteizko Enpleguaren Foroa), Gasteizko Udalaren Enplegua eta Garapen Ekonomiko Iraunkorra Sailarekiko lankidetzan.**

Enplegu Gune 2020 2020ko martxoaren 5ean burutu zen, orientazioan eta lan bitartekaritza oinarritutako jarduerekin, eta foroa lurraldeko enpresen eta enplegu eskatzaileen arteko topagune bihurtu zen. Jardunaldian hainbat jarduera egin ziren (mahai inguruak, tailerrak, informazio standak, etab.) enpresei, erakundeei, lana bilatzen ari diren pertsoneri eta orientazioko profesionaleri zuzenduta, eta 800 pertsona inguru bertaratu ziren.

Jardunaldian 53 enpresak parte hartu zuten; horietatik 32k etengabeko presentzia izan zuten informazio standetan, 14k mahai sektorialetan parte hartu zuten, 43k enplegu eskaintzak egin zituzten foroaren webgunearen bidez eta 14k elkarrizketak egin zituzten abian zituzten lan eskaintzetarako.

Urtarrileko hil osoan zehar eta jardunaldia egin arte, parte hartu zuten 293 enpresek egindako 115 lan eskaintza gestionatu ziren [www.empleo-gune.org](http://www.empleo-gune.org) webgunearen bidez.

### **5.7. Lurralde nazionaleko eta atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko programak antolatzea eta kudeatzea, UPV/EHUko graduko, masterretako eta doktoregoko ikasleentzat.**

- ❖ 2019/2020 ikasturtean, Arabako Campusak, beste bi campusekin batera, Eusko Jaurlaritzaren "Hezkuntza mundutik lan mundurako trantsizioa" programan parte hartu du, ikasleek enpresetan eta erakundeetan praktikak egiteko. Deialdi horretan, Arabako Campuseko ikasleei 105 beka esleitu zitzaizkien emandako 748 beketatik (660atik 90 beka 2019ko deialdian eta 88atik 15 beka 2020ko deialdian).
- ❖ 2019/2020 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin batera, parte hartu du ikasle egresatuen Erasmus+ EPEZ XI mugikortasun programan; zehazki, 40 graduatuk Europako enpresetan egin dituzte praktikak.
- ❖ 2019/2020 ikasturtean Arabako Campusak, gainerako bi campusekin batera, parte hartu du ikasleen Erasmus+ IkaslePraktikak mugikortasun programan; zehazki, UPV/EHUko graduko, masterretako eta doktoregoko 66 ikaslek (28 gizon eta 38 emakume) Europako erakunde eta enpresetan egin dituzte praktikak.
- ❖ Halaber, Enplegu Foroaren barnean saio espezifikoko bat egin zen kontratazioari laguntzeko baliabideei buruz. Informazioa eman zen UPV/EHUk ikasleak laneratzeko eta enplegarritasunaren inguruan dituen baliabideen inguruan, bai eta egresatuei buruz ere (Erasmus+ EPEZ eta IkaslePraktikak, enpresetako praktikak egiteko "Hezkuntzatik lan mundurako trantsizioa" programa etab.). Halaber, Lanbidek eta Vitoria-Gasteizko Udalak enpleguaren, orientazioaren eta prestakuntzaren inguruan dituzten baliabideen inguruko informazioa eman zen.

## **6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak**

---

### **6.1. Suteak detektatzeko sistemak eta alarmak hobetzea.**

- ❖ Farmazia Fakultatearen sektorizazioa hobetzeko 1. fasea gauzatu da, eta 35/20 APS lizitatu eta esleitu da 2. fasea gauzatzeko.
- ❖ Suteetarako telefonogune berri bat instalatu da Ingeniaritza Eskolan.
- ❖ Suteen aurkako ekipoak berritu dira Zenbait ikastegitan, iraungitasun data kontutan hartuta.

### **6.2. Larrialdi planak eguneratzea eta simulazioak egitea, ezarritako lan egutegiaren arabera.**

- ❖ Ekonomia eta Enpresa Fakultateko, Ingeniaritza Eskolako, Lan Harremanen eta Gizarte Langintzako Fakultateko, Lascaray Ikerguneko eta Micaela Portilla Ikerguneko autobabes planak eguneratu dira.
- ❖ Campuseko zenbait ikastegitako larrialdi taldeen izendapenak eguneratu dira.
- ❖ Ebakuazio simulakroei dagokienez, 2019ko ekitaldiko bigarren seihilekoari dagozkionak egin dira. Ekitaldi horretan, Campuseko ikastegi eta eraikin guztiek egin dute (urtero maiatzetik azarora bitartean egin ohi dira). COVID-19 pandemiak sortutako egoera dela eta, ez da simulakrorik egin ekitaldiaren lehenengo seihilekoan, elkarguneetan jendea pilatzea saihesteko. Simulazio fisikoen ordezkio neurriak lantzen ari dira.

### **6.3. Arauzko aldizkako ikuskapenak eta neurri zuzentzaileak egitea, hala badagokio.**

- ❖ Aldian aldiko ikuskatze lanak egin dira campuseko hainbat igogailutan.

## 7. Unibertsitate hedakuntza

---

### 7.1. Kultura hedapeneko jarduerak.

7.1.1. EHUkultura Araba programa zehaztu eta garatu, erakusketak, teatroa, musika emanaldiak eta kultur ikastaroak antolatzeko.

Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura hedatzeko hainbat jarduera antolatu ditu, EHUkultura Araba programaren barruan.

Erakusketekin lotutako programazioa indartzeko, EHUkultura Gipuzkoarekin koordinatuta lan egiten jarraitu dugu, eta lankidetzaz ildo berri bat ireki dugu Gasteizko arte eta lanbide eskolarekin. Horren ondorioz, Thoreauren irudiari buruzko hitzaldi bat eta erakusketa bat egin dira.

Kontzertuei dagokienez, Arabako lurralde historikoan kokatutako musikarekin lotutako tokiko taldeak eta kultura eragileak sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitu da. Gainera, EHUTERPE unibertsitate elkarte koralarren jarduera babestu da, ikasleak, AZPko kideak eta irakasle eta ikertzaileak biltzen dituen.

Arabako campuseko lehenengo teatro gela hasi da lanean, Zaldiko Maldiko izenekoa. Gainera, teatro ikastaroak eskaintzen jarraitu dugu (ingelesez), ematen ditugun sei hileko ikastaro kulturalen barruan, gure ikasleak protagonista dituzten emanaldiak egin daitezten. Lan ildo honen barruan, ingelesezko teatro ikastaroaz gainera, beste era bateko ikastaroak ere gehitu dira, gure unibertsitateko kideei eskaintza zabal eta aktiboa eskaini nahian.

Hala ere, COVID-19k programazioaren azken zatian eragina izan du. Online beste ekintza batzuk sustatu behar izan dira, hala nola kontakizun laburren lehiaketa, guztira 1.274 kontakizun aurkeztu zirelarik (% 96 gaztelaniaz eta % 4 euskaraz, 10 herrialde baino gehiagotatik etorriak).

Programaren barruan honako kultur jarduerak sartu dira:

- ❖ ERAKUSKETAK (4): "EHUkultura Araba Erakusketa" (2019-10-14 eta 2019-12-20), "Ramón Menéndez Pidal: paisaje de una vida" erakusketa (2019-11-07 eta 2019-11-23), "Borderlands" (2019/12/20-2020/01/24), "Walden or life in the woods" (2020-02-03 egunera arte).
- ❖ KONTZERTU MUSIKALAK (6): "Parradust" (2019/09/12), "Srta. Escarlata" (2019/10/17), "Actuaciones del coro universitario EhuTerpe" (2019/01/31), "Concierto musical Ehuorkestra & EhuTerpe" (2019/11/17), "Concierto de Navidad de la Asociación Iragarri" (2019/12/12), "Zoe" (2020/03/04).

- ❖ KULTURA IKASTAROAK (8): Lehenengo lauhilekoa: "Teatroa" (ingelesez), "Musika" (euskaraz), "Oratoria, argumentación y debate" (gaztelaniaz), "Escritura creativa" (gaztelaniaz). Bigarren lauhilekoa: "Teatroa" (ingelesez), "Musika" (euskaraz), "Oratoria, argumentación y debate" (gaztelaniaz), "Escritura creativa" (gaztelaniaz).

7.1.2. Campus V.O. programazioa. Jatorrizko bertsioko film emanaldiak antolatu beste erakunde batzuekin batera.

Atal honetan, orain arteko lan ildo jarraipena emateaz gain, Iragarri unibertsitate elkartearen lankidetzan mantendu da, eskaintzari zineforum formatuaren eskaintza (filma+solasaldia) ekarri diolarik. Era honetara, ohiko eskaintza handitu da, jatorrizko bertsioren, tailerren, maratoien eta zineforumen artean 9 film proiektatuz.

Gainera, ikasturte honetan Raíces de Europa (REIFF 2020 Zinemaldia) elkartearen nazioarteko zinemaldiarekin lankidetzan aritu gara, 2020ko martxoaren 5ean campusean egindako emanaldiekin.

7.1.3. Kultura hedatzeko eta tokiko prentsan eta prentsa espezializatuan hedatzeko jarduerak suspertzea, sare sozialen, prentsaurrekoen eta abarren bidez.

Arabako Campuseko kultur jarduerak tokiko prentsan eta prentsa espezializatuan egon dira, eta idatzizko prentsak gure programa sustatzen lagundu duela azpimarratu dute. Halaber, egindako jardueren berri eman da sare sozialen bidez (INSTAGRAM, FACEBOOK eta CAMPUSA).

7.1.4. Hiriko kultur eragileekin lankidetzan hitzarmenak bultzatzea.

Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Gasteizko kultur eragile ezberdinekiko lankidetzan sustatu da, honen ondorioz, akordio ezberdinetan gauzatu dena, besteak beste, Vital fundazioarekin eta Vitoria/Gasteizko udalarekin sinatutako lankidetzan hitzarmena, CORTADA jaialdiarekin lankidetzan jarduteko. Espainiako Zinemaren Akademiak Goya sarietarako jaialdi kalifikatzailea izendatu du. EGEDA kudeaketa erakundeak ere aitortu du Forque Sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa. Azkenik, Espainiako Film Laburren Elkarteak (AIC) kalitate ziurtagiria eman dio lehiaketari. Era berean, erakundeek laguntza ere eskaini dute "Musiversika" jaialdi musikala gauzatzeko.

7.1.5. Unibertsitate proiektuak jarduerak sustatzea campusean (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bidez.

Hainbat gela eta tailer kultural antolatu dira. Era berean, Campusean kongresuak, mintegiak, ikastaroak eta kultur jarduerak antolatzeko hainbat laguntza eman dira.

## **7.2. Unibertsitateko irudia zabaltzeko jarduerak**

Gure erkidegoaren artean zinema, musika eta literatura sustatzeko kultura lehiaketa berriak sustatzen jarraitzen da, eta honela laburbiltzen dira:

### 7.2.1. Literatura.

A. Kontakizun laburren lehiaketaren deialdia.

1.274 artikulua aurkeztu dira (% 96 gaztelaniaz eta % 4 euskaraz), aurreko edizioan jaso ziren 15 artikuluen aldean. Hori izan da EHUkultura Arabaren apustu handienetako bat campuseko kultura jarduerari eusteko konfinamenduan zehar, pandemiaren eragina dela eta. Parte hartze emaitza bikaina izan du, eta egunero 10 astez ikusi ahal izan da prentsa digitalean.

B. Iritzi artikuluen lehiaketaren deialdia.

COVID-19 delakoagatik 2020/2021 ikasturteko lehen lauhilekoan El Correorekin lankidetzan egiteko atzeratu da.

### 7.2.2. Zinema.

A. Vitoria-Gasteizko CORTADA film laburren XXIV. lehiaketarako deialdia (2019ko abenduaren 16-19)

1.700 film labur aurkeztu ziren, eta horietatik 66 hautatu ziren. Erakunde batzuek babes eman zuten berriz ere, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vital Fundazioak.

B. EHUSKARABANDA "euskarazko zinema Maratoia (2019ko abendua)

Zinema jardunaldi honen bidez film labur bat egin nahi da euskaraz Aurtengo edizio honetan, 11 taldek (55 pertsonak) hartu zuten parte.

### 7.2.3. Musika.

**MUSIVERSIKA.** Formatu digitalera pasatu da, lehiaketaren epea luzatuz. Irailaren 16an ospatu zen streaming bidez Jimmy jazz aretoan, aurreko edizioetako parte hartzaile kopurua bikoiztuz (8).

## **7.3. Kirol ekintzak**

7.3.1. Hainbat lehiaketatan parte hartzea



Guztira 1.231 pertsonak, 828 gizonen eta 403 emakumeen parte hartu dute unibertsitateko kirol-lehiaketetan. Arabako Campuseko ikasle guztien artean, 7.343 pertsonak hartu dute parte, % 16,76ko portzentajeaz. Generoari dagokionez, gizonen % 26,71k eta emakumeen % 9,50ek hartu dute parte. Kirol jarduerak horiek UPV/EHUk diruz laguntzen ditu oso-osorik. Hona hemen txapelketen arabarako parte hartzea:

- ❖ Arabako campuseko barne lehiaketa: Unibertsitateko 982 ikasleek parte hartu dute guztira (714 gizonen eta 268 emakumeen). Arabako Campuseko ikasle guztien artean, 7.343 pertsonak hartu dute parte, % 13,37ko portzentajeaz. Datuen arabera, programa honetan izena emandako pertsonen artean % 73 gizonen dira. Lehenengoz, Herri Kirol Txapelketa Sokatira eta Artaburu Bilketa modalitateetan sartu da. Osasun alarmaren egoera dela eta, ez dira bigarren lauhilekoko Udaberriko Txapelketak egin.

Joko garbian parte hartzeko premisa modu normalizatuan mantendu da. Lehiaketa jakin batzuetan parte hartu duten ikasleak izan dira lehiaketa bakoitzean arbitrajeaz, jarduerak garatzeaz eta erabakiak hartzeaz arduratu direnak.

- ❖ UPV/EHUren txapelketa: ikasturte akademiko honetan, Arabako Campusak UPV/EHUren hiru campusen arteko txapelketa planifikatu eta antolatu du Lakuako eta Mendizorrotzako kirol instalazioetan eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Kirola atala). Arabako Campuseko ikasle ordezkariak honako modalitate hauetan irabazi dute: emakumeen eskubaloia, emakumeen eta gizonen futbola, emakumeen frontenisia, emakumeen eta gizonen paleta gomazkoa, emakumeen tenisa, emakumeen tenisa, emakumeen eta gizonen Herri Kirolak (sokatira eta artaburu bilketa), emakumeen eta gizonen areto-futbola, emakumeen esku pilota, emakumeen eta gizonen esku pilota, emakumeen mahai tenisa eta gizonen boleibola.
- ❖ EAeko txapelketa: ikasturte akademiko honetan, UPV/EHUk hiru unibertsitateen (Mondragon, Deustu eta UPV/EHU) arteko txapelketa planifikatu eta antolatu du Faturako (Getxo) kirol instalazioetan eta UPV/EHUko Leioako campusean. Arabako Campuseko ikasle ordezkariak irabazi dute: emakumeen areto futbola, emakumeen frontenisia, emakumeen tenisa, emakumeen mahai tenisa, gizonen bikoteen eskuzko pilota, gizonen pilota goma, gizonen futbola eta gizonen boleibola.

- ❖ CEU: Espainiako Unibertsitate Txapelketa ez da inolako kirol modalitatetan egin, osasun alarmaren egoeratik.
- ❖ UPV/EHUK ez du Zabalki Nazioarteko Pilota Txapelketan parte hartu Baionan eta Biarritzen, osasun alarmaren ondorioz.
- ❖ "Enpresen Lasterketan" UPV/EHUko Arabako Campusa ordezkatzuz 15 pertsonak parte hartu dute (5 emakume eta 10 gizon), eta bigarren postua lortu dute emakumezkoetan.

### 7.3.2. Lau hilean behingo ikastaroak eta beste kirol jarduera batzuk.

- ❖ Berrikuntza gisa, ikasturte honetan kirol jardunaldi bat egin da Arabako campuseko espazio publikoan, unibertsitate komunitatearen jarduera fisikoaren praktika osasungarria sustatzeko eta EHUkirola Arabako kirol programak sustatzeko. Errugbian, Herri Kiroletan eta Campuseko I. Lasterketan parte hartzeko jarduerak egin dira. 130 pertsonak hartu dute parte (% 46 emakumeak, % 84 gizonak).
- ❖ Jarduera fisikoa sustatzeari dagokionez (lehiarik gabeko jarduera gidatua), ikastaro sorta zabala antolatu dugu. Guztira, 22 talde izan dira, 8 kirol modalitate ezberdinetan, 377 unibertsitarioren parte hartzeaz (325 emakume eta 52 gizon). Nabarmendu beharrekoa da programa hauetan izena eman duten pertsonen % 86,21a emakumeak direla eta % 50eko subentzioa dutela.
- ❖ Lankidetzaz hitzarmena Gasteizko Udalarekin, unibertsitate komunitatean kirola irakatsi eta sustatzeko. Gure kirol jarduerak egin eta burutzeko behar ditugun kirol instalazio eta aretoak ditugu.
- ❖ Naturako Jardueren Programaren barruan, Kirol Bidean Udal Kanpaina sustatu da, eta 17 pertsonak parte hartu dute (8 emakume eta 9 gizon).
- ❖ Lankidetzaz hitzarmena Arabako Esku Pilota Federazioarekin, eskola baten bidez Emakumezkoen Esku Pilota praktika sustatzeko.
- ❖ Lankidetzaz hitzarmena Rugby Gaztedi klubarekin, rugby kirol eskola garatzeko.
- ❖ Halaber, lankidetzaz akordioak sinatu dira 28 gimnasio edo kirolgune itundurekin, eta 453 ikaslek jo dute horietara (332 emakume eta 121 gizon).
- ❖ Elkarlanean aritu gara hainbat erakunderekin; hala nola, Estadio Fundazioarekin, ariketa fisikoa, osasuna, kirola eta desgaitasuna, kirol psikologia... eta, oro har, kirol kulturari loturiko gaien inguruan hitzaldiak, zineforum saioak eta solasaldien bidez. Ikastaro honetan 13 hitzaldi antolatu dira guztira, eta 132 parte hartzaile izan dira (81 emakume eta 51 gizon).
- ❖ Lankidetzaz egin da Estadio fundazioarekin, "Zine forum" ziklo bat eskaintzeko, 4 filmekin, horien eta kirolaren inguruan eztabaidatze aldera.

- ❖ 28 ziurtagiri eman dira Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko unibertsitate kirolarientzako tutoretza plana egin nahi izan duten ikasleentzat (15 emakume eta 13 gizon).
- ❖ Arabako campuseko 12 ikaslek parte hartu dute kirol jarduerak antolatzen eta garatzen (emakume 1 eta 11 gizon).
- ❖ 300 ikasle inguruk eskatu dituzte graduiko ikasketetan kredituak aitortzeko eta transferitzeko ziurtagiriak (gehienak online izapidetu dira).

## **1. Infraestructuras**

---

### **Desarrollar el plan de intervención de reformas, mejoras y adecuaciones en diferentes centros.**

- ❖ En el curso 2019/2020 se ha prestado especial atención a las actuaciones de mejora derivadas de las evaluaciones de riesgos de los edificios; en ese sentido, en el edificio de Las Nieves se han instalado barandillas en la escalera principal y se ha mejorado su iluminación; en la Facultad de Farmacia se han instalado nuevos elementos de protección contra el fuego para mejorar la sectorización (Fase 1), se han colocado tensores adicionales en las barandillas exteriores de los pabellones y se ha instalado una nueva centralita de incendios en la Escuela de Ingeniería. En esa misma línea se ha licitado y adjudicado la segunda fase para la mejora de la sectorización de la Facultad de Farmacia. La ejecución de dichos trabajos se desarrollará en el último trimestre del ejercicio 2020 (curso 2020/2021).
- ❖ Se han finalizado los trabajos de habilitación de un aula de simulación en la Facultad de Farmacia.
- ❖ Se han habilitado dos nuevos espacios de docencia en la Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social.
- ❖ Se han instalado puertas automáticas en la Facultad de Economía y Empresa y en el edificio principal y en el polideportivo de la Sección de Deporte de la Facultad de Educación y Deporte. Asimismo, se han realizado trabajos de revisión y mantenimiento de las puertas automáticas instaladas en los accesos principales de los edificios del Campus para garantizar la accesibilidad universal.
- ❖ Se han sustituido ventanales de la fachada Oeste de la Facultad de Letras con nueva carpintería de aluminio y vidrio climático.
- ❖ Asimismo, se han ejecutado diversas actuaciones dirigidas a la mejora de las condiciones acústicas, de iluminación, etc. en aulas, laboratorios y zonas de circulación de varios centros (Escuela de Ingeniería, Facultad de Educación y Deporte-Sede, Facultad de Relaciones Laborales y Trabajo Social, Facultad de Letras).

- ❖ Se ha tramitado el 48/20 PAS (procedimiento abierto simplificado) de obras de reforma de varios locales en los edificios del Campus de Álava. La ejecución de dichos trabajos se desarrollará en el último trimestre del ejercicio 2020 (curso 2020/2021).

## **2. Desarrollo académico e investigador**

---

### **2.1. Favorecer el Programa de comunicación científica a través de distintas estructuras y eventos.**

Organización de la *Zientzia Astea 2019* en colaboración con el Vicerrectorado de Desarrollo Científico y Transferencia. En el caso del Campus de Álava, la *Zientzia Astea 2019* se celebró del 7 al 10 de noviembre en el Museo Bibat y más de 3.000 personas asistieron a las diferentes actividades programadas.

### **2.2. En colaboración con el Vicerrectorado de Innovación, Compromiso Social y Acción Cultural se han desarrollado actividades dirigidas a la mejora de las competencias y cualificación del PDI.**

En el marco de la convocatoria "Seminario Permanente de Apoyo a la Investigación" en el Campus de Álava, que pretende cubrir las necesidades específicas y transversales del PDI, se ha impartido formación orientada a mejorar sus competencias. Durante este periodo, se han organizado 6 cursos a los que han asistido 67 mujeres y 53 hombres.

### **2.3. Facilitar la comunicación de la oferta formativa, programas complementarios y otras actividades.**

Apoyo a la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU en la organización de los cursos que organizan los Grupos de Investigación del Campus de Álava y diferentes entidades del Territorio Histórico de Álava.

Este año, dentro de la XXXVIII edición de los Cursos de Verano de la UPV/EHU, en el Campus de Álava se ha colaborado en la organización de 3 cursos en formato **online**:

- Ardoa 2020: ¿Y ahora qué? Compartir y definir la estrategia del sector de las bebidas de Euskadi tras la crisis, 2 de julio
- Mujeres, violencia y Transición, 18 de septiembre
